

{ koaderno } Laura Mintegi

«Dies que duraran anys»

Egunotan Katalunian bizitzen ari garena ikasiko da eskoletako testu-liburuetan eta zuzenbide fakultateetan. Soziologiak eta gizarte zientziek aztertuko dute. Politika-gintzak eta gizarte mugimenduek ezinbesteko erreferentea edukiko dute hemendik aurrera. Zirrargarria da norberaren begiez ikustea, orduz ordu, egunen batean irakasgai izango dena liburuetan.

Lerro hauek idazten ditudanean jakin dugu astelehenean bilduko dela Kataluniako Parlamentua eta ez dakigu zer gerta daitekeen hurrengo egunetan. Ezarritako sistema irauli egiten den unean ezinezkoa izaten da alde aurretik jakitea zertan amaituko den iraulteta, baina badago esaterik inoiz ez dela itzuliko alde aurreko egoera berberera.

Iraultzaren ezaugarrieta-riko bat da ustez ez dela ezer gertatzen tupustean dena gertatzen den arte. Eta ordura arteko hesia behin gaindituta, ez dago jakiterik noraino helduko den gainezkatzea, norainoko indarra izango duen bulkadak.

Zaila da eferbeszentzia uneetan kalkulu objektiboak egitea. Iraultetaren irismena atzemateko begiratu diezaiokegu eferbeszentziaren oinarriari, sendoa ala ahula den, azalekoa ala sakona, gertaera batzuek eragindakoa ala mendez mende joan den eraikitzen, gertaera askok metatuta. Behaketa horrek lagunduko liguke hautematen gainezkatzea apar hutsa den, apalduko den bitsa, ala kabitu ezinean dagoen uholde kontrolaezina. Balora liteke objektiboki, beraz, nondik eta zergatik sortzen den eferbeszentzia, eta jatorriaren sendotasunaren arabera kalkulatu noraino hel daitekeen.

Baina egiazko iraultetan, iraungo duen iraulteta germinalean, ez-nahikoa da faktore objektiboak behatzea. Behaketa horrek ez digu emango gainezkatzearen tamaina, faktore subjektiboa delako garrantzitsuena. Prozesu politiko (artistiko, zientifiko) sortzaile

guztietan inoiz ez da falta elementu subjektiboa. Ezinbestekoa da subjektuaren (edo subjektuen) determinazioa, bidean jarritako oztopo guztiei aurre egingo diena, mehatxuek kikilduko ez duten determinazioa. Subjektibitateak ahalbidetzen du eraldaketa, ezer ez zegoen lekuan zerbait sortzea, zaharretik berria jaio-tzea. Eta berria ezin da aurkitu, ezta atzeman ere, zaharraren espazioan. Horrexegatik da aurreikusezina, eta horrexegatik ezin da jakin zertan amaituko den oraindio burutu gabe dagoen prozesu iraultzailea. Subjektibitatea ez baita neurgarria orainaldiaren aurreko faseetan. Badiok argi asko azaldu zigun.

Lerro hauek idazten ditudan unetik argitaratu arteko hiru egunetan gauza asko gerta daiteke Katalunian. Edozer gertatuta ere, erratzeko arrisku handirik gabe esan daiteke egun hauetan ari garela bizitzen *dies que*

Ezer ez da berdin izango indibiduoak subjektu bihurtzen den unetik aurrera, buruaskia den subjektuak bere etikaren arabera jarduten du-eta. Araudia hautsiko du etikaren aurka badoa

duraran anys. Ezer ez baita izango berdin indibiduoak subjektu bihurtzen den unetik aurrera, buruaskia den subjektuak bere etikaren arabera jarduten du-eta. Araudia hautsiko du etikaren aurka badoa. Moral berria ezarriko du etikan oinarrituta. Ez du ezagutuko egiaren aurka doan egitaterik eta, horrela, erostezina da. Ezin da erosi egituratik atera eta buruaskia den subjektua.

Poza, euforia, lasaitasuna eta enpatia dira subjektibatizata dagoen pertsonaren ezaugarriak. Horregatik besarka dezake *senyera estelada* daramanak bandera espainiarrean bilduta dagoen manifestaria. Badakielako egiaren alde ari dela, etikoki jokatzeko duela eta justizia berria eraikitzen ari dela.